



Helduen Literatura

Zoperna jenerala
Luis Berrizbeitia

Pamiela, 1987

Libreak eta lotuak

POESIA beti, ez dakit mailua, baina zapata zolan iltzea zaigunoi, xamur egiten zaizkigu genero narratiboagoak, ez hain minbera. Horrexegatik, poeta izaera ezagun izanagatik ere, aitor daiteke itzulpenen bitartez ezagutu izan dudala Luis Berrizbeitia –itzulpenen bitartez itzultzaile bat ezagutzen ahal den heinean, noski–. Hau idazten duenaren heziketa sentimentalean ezinbestekoa izan da, adibidez, *Gauza guztien zergatia*, Quim Monzó katalanarena; abadinarrak itzuli zuen. Berdin, geroxeago, Roald Dahl, eta hemendik eta handik hartu zizkion *Ixtorio hautatuak*. Berriki euskaratu duena izango da *Basamortua*, J.M.G. Le Clezio Nobel sarituarena.

Nagiak ere gainetik kentzeko daude-eta, azken buruan, ausartu naiz Berrizbeitia poetarekin. Aukeratu behar eta jo dut estreinakora, 87ko *Zoperna jenerala* bildumara. Baina lasai asko izan zitekeen berdin *Eremu karroinduak*, olinpikoa, 92koa. Irakurlerik mendreenak atsegin hartuko du, orobat, Koldo Izagirrek apailatu zion kaierarekin –bada zerbait, XX. mendeko berrogeietarik bat–. Ezen, bateko besteko, poemek baitute elkarren artean lokarria, “denen azpian epaixkaz eta gorderik bezala dagoen sentsibildade batean”. Ez da erraz definitzen: irudien dotorezia, tonuaren oreka, unibertsalasun gogoia, tradizio kulturen eta koblakaritzaren baliatzea egozten dio hitzaurrean Izagirrek. Gehituko genuke hizkerarekiko xera, herriaren literaturari mira, arnas goratzeko gura.

Eta, hara, aski azkar konturatuko da poesia irakurle alferrena ere poema narratiboak badirela halaber –dena delakoa dela poema narratibo izendapen hori–: *Esperantzazko solasa* edota *Haurra eta katabuta*, ia ipuintxo bat kontatzen dizutenak. Baina ez zaio bereziki kostako, era berean, bestela ebakita dauden poemak identifikatzea, koplariagoak: *Pariserat bidez* –Arnaud Oihenarti kuku– edota *Amodioaren urrentzia*. Ez gutxi kantatzeko modukoak begitandu zaizkit, Oskorrik *Negu partean mizpira* eder harekin egin bezala –“zu nitaz baino ni zutaz nago/ askozaz gehiago zale”–. Izan ere molde bitako poemak aurkituko ditu, batzuk libreak eta besteak lotuak. Baina guzti-guztiak esan daiteke direla aski askeak, aski buruaskiak, are aski bustiak: lerratzen dira nolabaiteko espiritu kritiko batekin. Eta, zer demonio, batzuek badute tarteka ukitu apokaliptiko bat, oso garaira datorrena: “Etorriko da eguna/ lurra ikaratu eta eraitsiko baita dorrea” (...) “eta orduz geroz oin berriek ebakiko dute bidea” (...) “etorri behar baita eguna/ dena berdin izatekoa”. *Zoperna* handia baita, uholde jenerala, jainkoak bidali-tako zigorra; edo, nondik begiratzen zaion, bedeinkapena. ■

Aritz Galarra



1 irakurri



2 hautatu



3 erabili



4 lagunei bidali